Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2026ko apirilaren 22ko 17:30ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Elena Jiménez Rey, Miren Nekane Nuño Iturri, Oier Zaldúa Ortiz de Guzmán, Enrique Garralda Erro, Teresa Bidaurreta Azcarate eta Juan Luis Fermin Gil García zinegotziak, bilkuraburu alkatea, Leire Remiro Esnoz izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gari zerrendari ekin baino lehen Jiménez Rey zinegotziak eta ETI taldeko Gil García zinegotziak bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

1.- 2026ko OTSAILAREN 18ko eta MARTXOAREN 26ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Aho batez erabaki da 2026ko otsailaren 18ko akta onartzea, nahiz eta ehiza-barrutia eratzeko erabakian 2035-2036 denboraldia jarri behar den 2036-2037 denboraldiaren ordean, eta berriro kontzejuetara bidali behar den onartzeko.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2026ko martxoaren 26ko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2026ko OTSAILAREN 14tik APIRILAREN 16ra ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Remiro Esnoz andreak, 2026ko otsailaren 14tik apirilaren 16ra eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.- 2026KO AURREKONTUEN HASIERAKO ONESPENA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta 2026ko ekitaldiko aurrekontuaren espedienteari dagokionez azaldu du espediente batzordean ere aztertu dela, eta, beraz, behin-behinean onartu behar dela. Hala ere, alde aurretik, 2026ko aurrekonturako prestatu duen aurreikuspenei buruzko memoria irakurri du. Hona hemen memoria horren testua:

ALKATETZAREN MEMORIA 2026KO AURREKONTUAK.

“2026. urte honetarako, bi milioi eurotik gorako aurrekontua aurkeztzen diogu osoko bilkurari

Aurten, alde batetik, aurreko ekitaldian hasi ziren eta aurten amaituko diren proiektuak bukatzea espero dugu, eta, bestetik, garrantzi handiko proiektu berriak gauzatzea, 2026ko ekitaldirako aurrekontuan sartu beharreko inbertsioen ikuspegitik.

Inbertsioei dagokienez, komeni da gogoraraztea udal plana idazteko azken fasean gaudela; mahai gainean dugu, halaber, Nasuvinsak bere garaian Bizkarreta-Gerendiain eta Erroko kontzejuekin etxebizitza arloan sinatutako hitzarmenak betetzeko konpromisoa; beraz, azkenean, bi proiektu horiekin udal lankidetzarako erreserbatutako aurrekontu-partidak gauzatuko ditugu.

Horrez gain, 2026-2028 TAPak diruz lagundu dituen bailarako 3 proiektuetako bati ekingo diogu 2026 honetan: SARERIK GABEKO ZOLADURA BERRITZEA BIZKARRETA-GERENDIAINEN (DONE JAKUE BIDEA), 2. FASEA; 3. FASEA ere diruz lagundutako erakundeen zerrendan dago, eta 2026. urte honetan proiektuaren idazketari ekingo diogu, eta datorren urtean gauzatuko da. Eta TAParekin diruz lagundutako hirugarren proiektuari dagokionez, ERROKO DONE EZTEBE KARRIKAKO SAREAK BERRITZEA (2. FASEA) ETA DONE EZTEBE KARRIKAKO ZOLADURA (2. FASEA), proiektua idazteko ere aginduko da, nahiz eta 2028. urtean egin behar den, eta, beraz, urte horretako aurrekontuan sartuko da.

URAREN ZIKLOA DIGITALIZATZEKO proiektuaren zereginekin jarraitzen dugu, eta, azkenean, 2026ko uda baino lehen amaituko da. Horrez gain, ekintza berriak egingo ditugu gure kontzejuetan ABIADURA MURRIZTEKO ELEMENTUAK instalatzeko, iaz hasitako bideari jarraituz. Oraingo honetan, aurrekontuan aurreikusitako inbertsioa GORAGUNEAK egiteko izango da, ERROKO sarreran eta irteeran.

Cedernak bultzatutako GAZTAINONDOEN PROIEKTUAREKIN lotutako jarduera-ildo berri bat dugu, eta aktiboki parte hartzen ari gara.

Bestalde, aurten ere AURIZBERRIN dagoen nabe/biltegi bat erosiko dugu, duela urte batzuk antzemandako beharrari erantzuteko. Nabea erosteaz gain, inbertsio txiki bat egingo dugu, hura egokitzeke.

Orain arte aipatutakoaz gain, 2026. urte honetako 6. kapituluan, beste inbertsio garrantzitsu batzuk ditugu, hala nola Sorogaingo Aterpetxean egingo ditugun egokitze-lanak, EhBilduk Nafarroako aurrekontu orokorreari aurkeztutako zuzenketa izendun baten babesarekin.

Proiektu horretan bertan, Sorogaingo merenderoren baten irisgarritasuna hobetzeko egin beharreko lanak ere sartzen dira.

Era berean, erabilera kolektiboko ondasun bat izateko erosi den KARPA MODULARRAREN inbertsioa egingo dugu, udalak, kontzejuek edo bailarako beste kolektibo batzuek aire zabaleko jarduerak antolatzeke.

Karpa izan da LGPri aurkeztutako proiektuetako bat, eta horiei heldu ahal izateko behar adinako puntuazioa eta diru-laguntza eman zaie. LGPk aurkeztu eta finantzatu duen bigarren proiektua, 2026. urtean gauzatuko dena, “Sorogaingo merendero guztiak hobetzea eta egokitzea” da, baita sentsibilizazio-kanpaina bat garatzea ere, gure ibarrerako hain garrantzitsua den leku batean, Sorogainen, turismoak eta gure lehen sektoreak ahalik eta interakzio onena izan dezaten laguntzeko eta aurrera egiteko.

Sorogainen ere baditugu turismo jasangarrira bideratutako inbertsio proiektuak: horren adibide da laster martxan jarriko den Sorogaingo Interpretazio Zentroa (PSTD funtsekin finantzatuta) eta CISen eduki ardatzekin zerikusia duten bidexka tematikoak egokitzea. Horretarako finantzaketa bilatuko da RED EXPLORAREN diru-laguntza deialdiaren bidez.

Kulturaren eta ondarearen ikuspegitik, 2026an Errotalde haitzuloan aurkitutako LOIZUKO GIZONAREN gorpuzkiekin lotutako udal-intereseko proiektu bat onartu dugu, eta aurrekontu-partida espezifiko eta garrantzitsu bat zehaztu da horretarako.

Turismoan eta ondarearen kontserbazioan aurrera egiten jarraitu nahi dugu, eta gai hauetan Pirinioetako deialdietara aurkezteko prestatu asmo diren proiektuetan jarriko dugu arreta.

Gainera, 2026 honetan mugaz gaindiko harremanak bultzatuko ditugu Urepelekin elkarlan proiektu baten bidez, 1856an sinatutako Baionako Mugen Itunaren 170 urteekin lotua. Eta, arlo horretan, Udalak AECTa (Mugaz Haraindiko Lankidetzako Europako Taldea) sortzeko eta martxan jartzeko prozesuan jarraitzen du. Talde horretan, mugaren alde bateko eta besteko udalek parte hartzen dute.

2026 hau ere garrantzitsua izango da zaintza arloan, izan ere, Nafarroako aurrekontu orokorrek gure egoitzan, Asistencia Ibañetan, egin behar dugun trantsizioari eskaini dioten 100.000,00€ko zuzenketarekin lotutako hitzarmena sinatuko du gure Udalak Gizarte Eskubideekin, aurreko akziodun nagusia (Planiger S.A.) enpresatik atera ondoren.

Biztanleria finkatzeari dagokionez, gure udalak derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo ikasleen garraio proiektuaren buru izaten jarraitzen du, beharrezko tresna baita gure gazteriak etxean eta herrietan jarrai dezan, beren prestakuntza ibilbidean aurrera egin eta nahi duten tokiraino iritsi arte.

Eta berdintasunari dagokionez, Eskualdeko Berdintasun Zerbitzuaren eragile izaten jarraitzen du Udalak. Zerbitzu hori beste 3 urterako berritzea erabaki da, eta, berritzeko sinatze-ekitaldian, NABiko zuzendaritzak nabarmendu zuen modu esanguratsuan, sinatze-ekitaldira gonbidatuta.

Era berean, aurten udal webgunea eta udalaren komunikazioa hobetzen inbertitu nahi dugu, udal hurbilagoa eta gardenagoa izateko helburuarekin.

Proiektu horiek guztiak aurrera eramateko eta ohiko zerbitzuei eusteko, bai eta udal honek eskaintzen dituen dirulaguntzen deialdiei eusteko ere, diru-sarrera nahikoko partidak ditugu.

Diru-sarrera arruntez gain, Udalak Kinto Mankomunitatean parte hartzearen ondoriozko diru-sarrerak ditu, baita oihan aprobetxamenduen eta bertze zenbait arriendoren ondoriozkoak ere. Horri guztiari, beti bezala, dagozkion proiektuak aurkeztea aurreikusita dauden diru-laguntzen deialdietako funtsak gehituko zaizkio. Iaz esan genuen bezala, Nafarroako Gobernuko departamentuen diru-laguntza ildo berriak bilatzeko lanean jarraitzen dugu, planteatutako proiektuei heldu eta garatzeko.

Joan den 2025ean ezin izan zen egin aurreikusita zegoen genero-eraginaren azterketa, baina oraindik ere beharrezkotzat eta egokitzat jotzen dugu ekintza hori, eta, beraz, aurtengo aurrekontuei eta aurrekoei dagokien genero-eraginaren azterketa egingo zaie. Beharrezkoa ikusten dugu lan ildo honekin jarraitzea, bere genero ikuspegia hobetuko duten aurrekontuetarantz urratsak ematen joan ahal izateko.

Azken finean, ilusioz beteriko urtea izango da, bailara honetako herritar guztien onerako izango diren ekimen garrantzitsuez betetako aurrekontuarekin.”

Bidaurreta zinegotziak hitza hartu du eta honako galderak egin ditu:

Bizkarreta-Gerendiaingo zolaketaren gaineko TAParen partidari dagokionez, 310.000,00 euroko gastua eta 180.000,00 euroko diru-sarrera duena, ulertzen du kostua ez dela izango

obra bakarrik, eta Remiro Esnoz alkateak erantzun du proiektua idazteko eta obra zuzentzeko gastuak ere sartuta daudela.

Modu berean galdetu du Ardaizko festen partidari buruz, 4000 eurokoa, karparen alokairuarengatik den. Remiro Esnoz alkateak erantzun du badaezpada jarri dela, Ardaizko jaien datak direla eta, Udalak erositako karpa ailegatzen ez bada. Hala ere, erreserba-kontratuan baliogabetze-klausula bat ezarri da, zigorrik ezarri gabe, azkenean karpa alokatzea beharrezkoa ez bada ere.

Irati-Orreaga elkartearekin sinatutako hitzarmenari dagokionez, galdetu du ea kopurua ez zen aurrekontuan proposatutako 4000,00 €koa baino txikiagoa, eta alkateak erantzun du partida handitu egin dela, aurreikusita dagoelako haiekin proiektu bat egitea, osoko bilkura honetan aztertuko dena.

Sorogaingo aterpetxeari dagokionez, 77.000,00 euroko gastu-partida bat dago eta 15.000,00 euroko beste bat, eta 70.000,00 euroko laguntza badago ere, bere taldeak uste du diru asko dela. Alkateak erantzun du obrak jarduera asko dituela, komun irisgarria, dutexak, kanpoko sarbideko zoladurak, teilatutxoa berritzea, merenderoetarako sarbideak, egokitze lan nahiko garrantzitsua dela, eta horri gehitu behar zaizkio sukaldean egindako inbertsioak.

Zinegotziak esan du beste urte batzuetan Orreaga-Zubiri lasterketarako partida zegoela eta orain ez dela agertzen. Alkateak erantzun du gastua ordenantzari lotuta ez dauden kultura-kirola laguntzen partidari sartuta dagoela, eta lankidetzak-erabakiak ordenantzaren esparrutik kanpo daudela.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta esan du harrituta dagoela 60.000,00 euroko partida bat dagoelako kreditu bat hitzartzeko, nahiz eta Udalean nahikoa diru egon. Alkateak erantzun du mailegua aurrekontua koadratzeko dela, baina behar denaren arabera izapidetuko dela edo ez. Idazkariak gaineratu du aurrekontua urtean sortzen diren diru-sarrerak eta gastuekin egin behar dela, eta ezin dela diruzaintzako gerakinarekin koadratu. Hori dela eta, gastua murrizten da edo kreditu-partida onartzen da. Bestalde, idazkaritzak jakinarazi du aurrekontuak aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa bete behar duela. Ez dago argi beteko duen, zeren eta, 2025eko kontuak ez edukita, ezin baita jakin; nolana ere, hasieran onar daiteke, eta behin betiko onarpenerako, betetzen ez bada, onartzen jarraitu ahal izango litzateke, betiere likidazioan printzipio hori betetzen bada. Alkateak hitza hartu du eta adierazi du, betetzen bada, aurrekontua behin betiko onartuko dela bilkurara joan gabe, eta betetzen ez bada, berriz ere bilkuratik pasatuko dela, behin betiko onartzeko.

Udalkideek txostenari buruz egindako galderak argituta, Udaltzarak erabaki du aho batez 2026ko urtealdiko aurrekontuaren txostena hasiera batean onartzea, 2.127.550,00 eurotan, haren izapideari jarraitzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5.- 2026ko PLANTILLA ORGANIKOA. HASIERAKO ONESPENA.

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du 2026ko plantilla organikoa onartu behar dela eta aurreko urteko berdina dela. Aho batez erabaki da 2026ko plantilla organikoa hasiera batean onartzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LANPOSTUEN ZERRENTA

1.- Funtzionarioak

1.1.Lanpostua: zerbitzu anitzetako langilea (arduraduna) Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa murriztua (barne igoera). Maila: D. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria: 35,77%. Lanaldi osoa. Lanaldiaren luzapenaren osagarria: 10%. Gida baimena B mota.

2.- Langile finkoak.

2.1.Lanpostua: administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: C. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 30,20%. Lanaldiaren luzapenaren osagarria: 10%. Lanaldia 71,44%.

2.2.Lanpostua: administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: jardunean. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 30,20%. %30,20. Lanaldiaren luzapen osagarria %10. Lanaldia: %71,44. Lanaldia 71,44%.

2.3.Lanpostua: empleado/a de servicios múltiples. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: hutsik. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria: %8,77, Lanaldia: %43,63. 43,63%.16 ordu astero.

2.4.Lanpostua: empleado/a de servicios múltiples. Plaza kopurua: 1 Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: hutsik. Mailako osagarria: 12%. Lanpostuko osagarria: 15%. Lanaldia 100%. Araubide Juridikoa. Aldizkako lan araubide finkoa. (Arau osagarriak: lanpostuak izaera jarraigabea dauka eta epealdia apiriletik azarora izanen da, eta egin

beharreko lanak mendiaren garbiketa, bazkalekuen kontrola eta zerbitzu anitzetako langile gisa zerbitzuan egon daitezkeen bestelako beharren arabeko lanak). Euskara maila: B2.

3.- Orreaga, Auritz eta Erroibarko Udaletako zerbitzu bateratuak.

Lanpostua: idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Maila: A. Lanpostuko osagarriak: 40%. Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Izenen zerrenda

Funtzionarioak

Zerbitzu Anitzetako Langilea (arduraduna): Xabier Zia Urrutia.

Lan-kontratudun finkoak:

Administrari laguntzailea Anabel Erneta Erro

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu anitzetako langilea. hutsik.

Zerbitzu anitzetako langilea. hutsik.

Lan-araubideko aldi baterako langileak:

Zerbitzu anitzetako langilea (udal eraikinen garbitzailea): Iker Azkarate Leizabe

Zerbitzu anitzetako langilea. Ruben Salon Chic

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria: Egoera jardunean.

5.- 2026KO ABELTZAINZA AZPIEGITURETAKO PROIEKTUAREN ONESPENA BERRESTEA

Leire Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du otsaileko bilkuran Abeltzaintza Azpiegituretako 2026ko deialdirako laguntza-eskaera aurkeztea erabaki ondoren eta arloko bileraren ondoren, Basarteak proiektua idatzi zuela. Proiektua epeka aurkeztu zen aipatutako laguntzen deialdian, eta osoko bilkura honetan berretsi behar da.

Zaldúa zinegotziak hartu du hitza eta ADIko aska lehenbailehen egin behar dela esan du, laguntza ebatzita ez badago ere, beharrezkoa delako eta Kintoko Mankomunitateak berak

eskatu duelako. Idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du Ingurumen Departamentuaren baimena iritsi behar dela gauzatu ahal izateko. Haiekin harremanetan jarri da, eta, presa handia dagoenez, badirudi ahalik eta lasterren bidaliko dutela. Bidaurreta zinegotziak hartu du hitza eta ADIri dagokionez, galdetu du ea nola geratu den larreak aprobetxatzeko hitzarmena Kintoko Mankomunitatearekin; izan ere, sinatzen ez bada, ez du ulertzen zergatik sartu den jarduketa hori proiektuan. Alkateak erantzun du 4. arloan gai honekin eta hitzarmenaren edukiarekin egiten ari den lanaren berri emango duela.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta iradoki du aska ez dadila egin aurreikusita dagoen tokian, baizik eta dagoen bezala utzi, ur-hartunea ongi baitago, eta mahuka bat hartu eta gune lau batera atera eta bi aska jarri, sarbidea askoz errazagoa eta ingurumen-inpaktu askoz txikiagokoa izanik.

Alkateak erantzun du Kintoko Mankomunitateko hurrengo bilkuran gaiak hitz egingo dela. Aho batez erabaki da 2026ko Abeltzaintzako Azpiegituren digulaguntzen deialdian aurkeztutako proiektua berrestea.

6.- LANGABETUAK KONTRATATZEA

Remiro Esnoz alkate andreak hartu du hitza eta jakinarazi du urtero langabetuak kontratatzen direla Erroibarrerako lanak egiteko. Aurten Erroibarko langabetu bat kontratatzea proposatzen du, lanaldi osoz eta 6 hilabetez

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

- 1.- Pertsona bat kontratatzea lanaldi osoz sei hilabeterako.
- 2.- Interes orokorreko eta sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki erakundeei diru-laguntzak emateko deialdian dirulaguntza eskatzea.

7.- GARAPENERAKO LANKIDETZA LAGUNTZA NUKF

Jimenez Rey zinegotziak hartu du hitza eta gogorarazi du duela pare bat urte, arloan, 0,7 laguntzen partidari 5000 € jartzea erabaki zela. Urte amaieran zer proiektu aurkeztuko diren jakina denez, gainerako dirua NUKFren Lankidetza Funtsera bideratzea adostu zen. Kasu horretan, Federazioari bidali behar zitzaion noiz eta nola hartu zen erabakia; beraz, bilkurarako deialdia egin behar zenez, gai-zerrendan sartzea erabaki zen, eta data hori ezartzea erabakia hartzeko. Aurten, 2000 euroko laguntza eskatu da, eta, beraz, 3000 euro geratzen dira. Zenbateko hori NUKFak kudeatzen duen funtsari ematea proposatzen da, eta aho batez erabaki da beste proiektu batzuetan gastatu gabeko 0,7 partidatik 3.000,00 euro bideratzea, NUKFren lankidetza-funtsari ordenantzaren arabera.

8.- UDAL KARPA ADJUDIKATZEKO PROPOSAMENA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du ERROIBARKO UDALAREN KARPA HORNIDURA ETA ZERBITZUAK kontratazio mistorako aurkeztutako hiru proposamenak baloratzeko prozesuaren ondoren, Carpas Expandi S.L., Aragonesa de Carpas S.L. eta Carpas Zaragoza S.L.U., kontratazio-mahaiak, txosten teknikoa ikusi ondoren eta baldintza-agiriaren araberako balorazioak egin ondoren, proiektua Aragonesa de Carpas S.L. enpresari esleitzea proposatu dio kontratazio-organoari, Erroibarko Udalarentzat eskaintzarik onuragarriena delako.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

- 1.- Aragonesa de Carpas S.L.ri esleitzea Erroibarko Udalerako KARPA hornidura eta zerbitzuen kontratazioa, 29.233,00 eurotan (gehi BEZa).
- 2.- Hartutako erabakia lizitatzailerei jakinaraztea, jakin dezaten eta dagokien ondorioetarako.
- 3.- Esleipendunari kontratua formalizatu eta sinatzeko hartutako erabakiaren berri ematea, baldintzen agiriko 15. klausulan jasotako agiriak aurkeztu ondoren.

9.- IRATI-ORREAGA TURISMO ELKARTEAREN JARDUERA LAGUNTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du 3. arloko bileran Irati-Orreaga turismo-elkarteak egindako eskaera azaldu zela, eta Esteribarko turismo-elkartearekin, Nafarbasoarekin, batera KINTOA ALL MOUNTAIN izeneko jarduera jarri dutela martxan Mendiko bizikletekin zerikusia duen proba bat da, jasangarria eta parte-hartzailea, eta, horretarako, inguruko tokiko erakundeen laguntza eskatzen dute, bai behar izan ditzaketen baliabideen aldetik, bai babes ekonomikoaren aldetik. Arloan 1000,00 edo 1500,00 euroko laguntza ekonomikoa ematea baloratu zen, baita laguntza hori kudeatzeko modua ere, elkartearekin sinatutako hitzarmenaren eranskin baten bidez edo alkatetzaren ebazpen baten bidez. Azkenean, 1.500,00 €-ko laguntza ekonomiko baten bidez babestea eta ebazpen baten bidez kudeatzea da proposamena; izan ere, bi elkarteek jakinarazi dute jarduera horrekin jarraitzeko asmoa dutela, lehen urtea izanik, hobe iruditu zaie horrela egitea, gutxienez aurren. Ekitaldiak bi egun iraungo du, eta irailaren 12an eta 13an izango dira.

Garralda zinegotziak hartu du hitza eta bere kezka azaldu du. Izan ere, Kinton, adibidez, beste batzuetan eskatu izan da bidexka eta bideetatik joateko, eta askotan ez da errespetatzen eta mendiari kalte handia egiten zaio. Batzuetan, bidexkak sortzen dituzte urarekin, eta horrek arazoak sortzen ditu, alanbreak mozten dira, etab. Egin beharreko datei dagokienez, ehizaren gaiagatik aipatu du, kontuan har dadin. Remiro Esnoz alkateak baietz erantzun dio, ehizaren

aferagatik data kontuan hartu dela, eta jarduera hori proposatu zenean Hitzarmena osatzen duten erakunde guztiei aurkeztu zitzaizela. Proiektu hau azaltzeko antolatutako bileran proba antolatzeko oinarri eta irizpideen berri eman zen, baita zenbait konpromiso ere, eta, beteko ez balira, lankidetzaren publikoa bukatuko litzateke. Planteamendua ingurumenaren errespetuan eta jasangarritasunean oinarrituta egiten da; izan ere, lasterketan parte hartzea ez da masiboa, 150 pertsonarentzat bakarrik pentsatuta baitago.

Aho batez erabaki da:

1.- Irati-Orreaga eta Nafarbasoa turismo elkarteek planteatutako jarduera onartzea, eta Udalak babesa ematea 1.500,00 euro emanez “KINTOA ALL MOUNTAIN” mendi lasterketako probarako

2.- Hartutako erabakia Irati-Orreaga Elkarteari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan

10.- EUSKARABIDEARI DIRULAGUNTZA ESKATZEA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du apirilaren 9an argitaratu zuela Euskarabideak toki-erakundeentzako laguntzen deialdia, 2026an euskara erabili eta sustatzeko. Deialdi horretan jasotzen diren jarduerak eta programak 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitartean egingo direla.

Erroibarko Udalaren kasuan Euskara Zerbitzuak jarduera/programa hauek aurkeztea aurreikusi da:

Eguberrietako tailerrak (2025/2026) Erron eta Aurizberrin, Bertso afaria Erron 2026/01/31, Bertso Eskola (2025/2026), zeinu hizkuntzako tailerra Mintzakide programaren baitan, haurrentzako antzerki emanaldia Erroibarko Egunean, Erroibarko Eguneko kartelak eta udako haur zein gazteentzako jarduerak, guztira 10.857,89 €.

Aho batez erabaki da euskara teknikariak 2026rako aurkeztu duen jarduera plana onartzea 10.857,89 eurotan eta Euskarabideko dirulaguntza deialdira aurkeztea.

11.- 38. EBAZPENA BERRESTEA, EGUESIBARKO UDALAK SARRIGURENGO BI BIZILAGUNEN HILKETA ETA ERASOAREN AURREAN EGINDAKO ERAKUNDE ADIERAZPENARI ATXIKITZEARI BURUZKOA

Aho batez erabaki da Remiro Esnoz alkateak emandako 38. ebazpena berrestea, Sarrigurengo bi bizilagunen hilketa eta erasoaren aurrean Eguesibarko Udalak egindako adierazpen instituzionalari atxikitzeari buruzkoa.

12.- BESTERIK

1. Arloa (Gizarte ongizatea, osasuna eta berdintasuna) Jimenez Rey zinegotziak informazioa eman du

Desfibriladoreak

Jakinarazi da hastapen ikastaroa ez dela antolatu jende nahikorik ez zegoelako.

Udalbatza jakitun da.

Berdin bizi Berdintasun Zerbitzua

Jiménez Rey zinegotziak Garraldan hitzarmena sinatzeko egin zen aurkezpenaren berri eman du. INAIko zuzendari eta zuzendariordea han izan ziren, eta diru-laguntzetan gertatuko ziren aldaketen berri eman zuten. Jada ez dira bi deialdi, jarduerentzako eta langilea kontratatzeke, baizik eta dena deialdi bakarrean kontzentratuko da. Ekintzetarako zenbatekoak handiagoak izango dira, baina arau batzuk bete behar dira, eta berdintasun teknikaria kontratatzeke zenbatekoak ere aldatuko dira. Orain arte, diru-laguntza zazpi urterako zen, urtez urte portzentajea jaitsiz, eta, zazpigarren urtea bukatutakoan, laguntza amaitzen zen. Lehenengo bost urteetan muga bat egongo da: lehenengo urtean, 35; bigarrenean, 30; hirugarrenean, 25; eta laugarrenean, 20.000,00 € urtean. Eta bosgarren urtetik aurrera, denbora-mugarik gabe, 15.000,00 € izango dira, betiere baldintza batzuk betetzen badira. Baldintza horiek, oraingoz, bete egiten dira. Dirulaguntzak eskatzeko epea duela gutxi zabaldu zen.

Azkenik, jakinarazi da maiatzaren bukaeran Berdintasun Plana entitateei aurkezteko jardunaldia antolatuko dela eta plan hori Nafarroako Gobernuak joan den urtean emandako emendakinaren diruarekin prestatu dela.

Udalbatza jakitun da.

Asistencial Ibañeta

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza eta Asistencia Ibañetako udal ordezkari gisa jakinarazi nahi du joan den apirilaren 16an ekitaldi publikoa egin zela hedabideentzat eta egoiliar eta langileentzat, akziodun nagusi ohiari (Planiger) akzioak erosteko formalizazioari dagokionez. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

2. Arloa (Kultura, kirola eta euskera) Nuño zinegotziak informazioa eman du

Erremonteko finala

Zubirin erremonte finalarekin elkarlanean aritzeaz gain, txapelketetako partida batzuk inguru honetatik egitea proposatu dutela jakinarazi da. Añamendi pilota eskolari pasa zitzaion eskaintza eta Aurizberrin gauzatzea erabaki zen, jaietako igandean, txapelketa ofizialen egutegiagatik.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Aurizberriko eskolako jantokia

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du Hezkuntza Departamentuak Aurizberriko eskolari eta Pirinioetako Mahaiko Hezkuntza Taldeari jakinarazi diela datorren 26/27 ikasturtean eskola horretako jantokia “eskualdekoa” izango dela, eta, beraz, dekretu berriaren aplikazioaren arabera, familiek 2€/menu ordainduko dutela, hau da, dekretu honek despopulazio arriskuan dauden eskoletako jantokietarako ezartzen duen tarifa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Euskara Zerbitzua

Zaldua zinegotziak jakinarazi du Aitor Arana jaunak euskarazko hitzen hiztegia egin duela, Erroibarko euskeraren hiztegia, eta proposamen bat aurkeztu duela. Edizio txikia da, erakundearen beharrekin bat datorrena, eta 2026ko aurrekontuan sartu da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3. Arloa (enplegua, industria, energia eraginkortasuna, turismoa, landa garapena) Jimenez Rey zinegotziak eman du informazioa Remiro Esnoz

Sorogaingo interpretazio gunea.

Asteburu honetan Sorogaingo Interpretazio Zentroa martxan jartzearekin lotutako bi ekitaldi egingo direla jakinarazi da; bat ostiral arratsaldean, udalbatzari, kontzejuei, udal taldeari eta Cedernako talde teknikoari zuzendua. Ekitaldi horretan, proiektua garatu duten enpresek zehatz-mehatz azalduko dute zentro horren edukia eta funtzionamendua.

Eta larunbatean, hilak 25, goizean, beste ekitaldi bat egingo da bailarako biztanleei zuzenduta. Bertan, enpresa teknikoak ere izango dira, eta “ateak zabalik” egongo dira hura ezagutzera hurbildu nahi dutenentzat.

Udalbatza jakitun da.

Urrobi Partzuergoa

Jakinarazi da atzo Urrobi Partzuergoaren Batzarra egin zela, eta, bertan, partzuergoa desegiteari buruz hitz egin zela, bai eta bi erakundeek (Udala eta Batzarra) Urrobi Poligonoa kudeatzeko lankidetzan aurrera egiteko egituratu nahi duten lankidetzaren berriari buruz ere. Zaldua zinegotziak gehitu du hurrengo batzarra, seguru asko, maiatzaren 20an egingo dela.

Udalbatza jakitun da.

Explora Sarearen ikerketa

Zaldúa zinegotziak Sorogainen sar daitekeen jende-kopuruari buruzko azterketaren berri eman du. Azterketa hori Explora Sarearen bidez egingo da, eta egiteke dago. Berarekin harremanetan jarri ziren, eta bihar, goizeko 9etan, Nasuvinsatik eta Explora Saretik etorriko dira, proiektuari berriz ekiteko.

Udalbatza jakitun da.

4. Arloa (mendiak, abeltzaintza, bazkalekuak, ingurumena, ondarea, hondakinak) Informazioa Zaldúa Ortiz de Guzman zinegotziak eman du

Kintoa

Remiro Esnoz alkateak jakinarazi du Kinto barrutiko POC berria idatzi dela, laster usategien enkantea izango dela eta ADIko larreei buruzko lankidetza hitzarmena lantzen ari direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ehiza barrutia

Jakinarazi da, Erroibarko ehiza barrutiari dagokionez, POC idazten ari direla eta ostiralean bilera egingo dela Ingurumen Departamentuko teknikariekin, aurrera egin ahal izateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

8. Arloa (festak, ekitaldiak, Erroibarko Eguna) Remiro Esnoz alkateak informazioa eman du

Erro-Urepel mugaz gaindiko lankidetza proiektua

Jakinarazi da Urepelgo Udalarekin batera mugaz gaindiko lankidetza proiektu txiki bat jarriko dela martxan, Baionako Mugen Hitzarmena sinatu zeneko 170. urteurrena dela eta. Proiektuan aurreikusi diren jarduerak 2026ko maiatzaren eta irailaren artean egingo dira. Proiektua dirulaguntza lortzeko deialdi batera aurkeztu da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

13.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 19:50ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.

